

Bizkaiko Ondarea hurbilago

Bizkaiko Foru Aldundiko museo, areto eta interes tokiak

2021 JARDUEREN EGITARAUUA



Orrialde hauetan aurkezten dugu **foru-museo eta -aretoetako 2021eko jardueren egitaraua**.

Gure lurraldeko ondarearen zabaltzaile handienak direnez, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** museoek berriz ere eskainiko dute kalitatea, dibertsitatea, irisgarritasuna eta, nola ez, entretenimendua nagusi duten jarduera multzo bat. Jarduera horien helburua herritarrei Bizkaiaren, bertako jendearen eta tokien esentzia hurbiltzea da.

Badakigu ez dugula COVIDaren pandemia atzean utzi, iazko martxoan gure museoak eta aretoak zenbait hilabetez ixtera behartu gintuena. Garai latzak izan ziren, eta orduan Bizkaiaren zerbitzura jarri ginen, sare sozialetan genuen presentzia nabarmen handituz, gure programen eta jardueren bidez. Ekainetik aurrera, zentroak ireki genituen, asmatu dugu espazio seguru bihurtzen, betiko kalitatea eskaintzeko, eta herritarrek harrera beroa egin diote horri. Beste behin, kultura eta, horrekin batera, gure museoak eta aretoak, guztion zerbitzura gaude.

Foru-erakundeko museoetan lan egiten dugunok, inoiz baino gehiago, uste dugu gure instalazioek, jarduerak, gidek eta teknikariek, ahal den heinean, normaltasun-espazioak berreskuratzen lagundu behar dutela.

Konpromiso hori berritu egin dugu gure bisita gidatuen, ibilbideen, erakusketen, konferentzien eta tailerren programa berriarekin. Horren bidez, gure eskaintza egonkorraz gain, beste hainbat pertsonaia eta gertakizun ikusiko ditugu, adibidez, Akurioren eta Elkanoren odisea, euskaldunei lotuen zegoen Hemingway, gure arkeologoaren abentura ezezaguna eta Bizkaiko artista gazteen sorkuntza berritzaileak eta harrigarriak, besteak beste.

Hori guztia zuen zerbitzura, Bizkaiaren zerbitzura eta batez ere, gu ezagutzera datozenentzat... Betiko legez: hurbilekoak, zorrotzak, erakargarriak... eta oso-oso entretenigarriak.



FORU-MUSEOETAKO ETA -ARETOETAKO COVID NEURRIAK

1. **EDUKIERA MUGATUTA** egongo da.
2. **Jarduera eta bisita guztiak AURRETIK ERRESERBA EGINDA.**
3. **MASKARA NAHITAEZ** erabili behar da, sartzen den unetik irten arte.
4. Sarreran **TENPERATURA** hartuko da.
5. Garrantzitsua da **SEGURTASUN-DISTANTZIA** mantentzea (**2 metro**).
6. **ESKUAK GARBITU**. Museoko hidrogel-banagailuak daude.
7. **EZ UKITU** gainazalik eta objekturik.
8. **TXARTELAZ ORDAINTZEA** gomendatzen da.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO MUSEO, ARETO ETA INTERES TOKIAK

Arkeologi Museoa BILBAO	2
Arrantzaleen Museoa BERMEO	8
El Pobaleko Burdinola MUSKIZ	12
Euskal Herria Museoa GERNIKA-LUMO	18
La Encartada Fabrika-Museoa BALMASEDA	22
Muñatones Gaztelua MUSKIZ	26
Santimamiñe KORTEZUBI	30
Txakolin Museoa-Txakolingunea BAKIO	34
Ondare Aretoa BILBAO	38
Rekalde Aretoa BILBAO	40
Ibilbide Historikoak	43

INFORMAZIO GEHIAGO



944 066 341



bizkaikoa.hedapena@bizkaia.eus



www.bizkaikoa.bizkaia.eus



@BizkaiaKultura



@OndareaBizkaia

| **Jardueren informazioa** etengabe eguneratzen da **Web** gunean eta **Sare Sozialetan**.


| **Jardueren berri** izan nahi baduzu, egin zaitez buletinaren harpidedun: www.bizkaikoa.bizkaia.eus/buletina.

ARKEOLOGI MUSEOA



Arkeologi Museoa erreferentziazko zentro bat da, eta Bizkaiko ikerketa arkeologikoak zabaltzen ditu bere jardueren bidez. Haien helburua da lurraldearen historiaren ezagutza hedatzea, ikerketa arkeologikoak sustatzea eta material arkeologikoak gordetzen, kontserbatzen eta zaharberritzen direla bermatzea.

Bertako erakusketa iraunkorrak gure lurraldeko lehen gizakienganaino garamatza, duela 100.000 urte baino gehiagora, garai historikoetan barrena.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arkeologimuseoa



Mallona Bidarriak 2 48006 BILBAO



944 040 990



arkeologimuseoa@bizkaia.eus



@arkeologimuseoa



Arkeologi Museoa



ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK



Aldi baterako erakusketek euskal arkeologiaren gai espezifikoak aurkezten dizkigute, museoaren erreferentziazko erakusketaren osagarri, baita Bizkaiko indusketa arkeologikoetan behar bezala testuinguruan jarritako material arkeologiko batzuk ere, oro har ikusi ohi ez direnak.



ERRALDOIEN BIZKAR GAINEAN: EUSKAL ARKEOLOGIAREN HISTORIA

OTSAILA-AZAROA




Arkeologia azken 150 urteotan osatzen joan den zientzia bat da, XIX. mende erdialdean aitzindari batzuk antzinako objektuak balioesten hasi zirenetik, lehenik haien ezaugarri estetikoengatik eta, gero, iragana ezagutzeko metodo moduan.

Erakusketan Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Iparraldeko arkeologiaren historia ikusiko dugu, lehen erreferentzia eta ikerketatik hasi eta gaur egunera arte. Diskurtsoarekin batera euskal lurraldeetako piezak eta objektuak ikusiko ditugu. Horren bidez, asmoa da gure aurretik etorri diren arkeologoei omenaldia egitea, gure egungo ezagutzaren oinarria izan direnei.

MUSEOA AZTARNAZ AZTARNA

Programa honetan erakusketa txikiak egiten dira. Normalean, ikerkuntza eta kontserbasioa bermatzeko museoaren artxiboan egoten diren piezak izaten dira eta programa honen bidez banan-banan erakusten dira. Pieza bakoitzak historia bat du, hura fabrikatu eta erabili zuten pertsonena eta giza taldeena.



- | **Urduñako gotortuaren kapitela erromanikoa** (XIII. mendea).
- | **Arrolako kastroko zintzarria** (Burdin Aroa).
- | **San Antongo mentsula** (Gotikoa).
- | **Argiñetako beirazko pitxertxoa** (Antzintasun-berantiarra).
- | **Brontze Aroko aizkorak**.

MARTXORA ARTE

MARTXOA-EKAINA

EKAINA-IRAILA

IRAILA-ABENDUA

ABENDUA

Oharra: Proposamen hau, azken ikerketen arabera, urtean zehar aldatu egin daiteke.





BISITA GIDATUAK

| **Asteartetik ostiralera** bisita gidatuak eskaintzen dira, **17:00etan**, taldeentzat, aurretik erreserba eginda edo bertan unean sortutako bisitari taldeentzat.

| **Erreferentziazko erakusketarako bisitak** egiten dira, hainbat diskurtsorekin: *"Ezagutu ezazu, ezagutu itzazu"*, *"Herri baten erroak"*, *"Museoa betaurreko lilekin"*, *"Mitoak apurtuz"* eta *"Historiaurreko artea"*.

| **Bisita espresak** (ordu erdikoak) egiten dira, erakusketa eta biltegiak ezagutzeko.

| **Aldi baterako erakusketarako bisitak** eskaintzen dira: *"Erraldioen bizkar gainean"*. Apiriletik.

| Museoko talde bisitariak **eskatutako** bisita.

| **Bisita bereziak** eskaintzen dira, ekitaldietarako eta ospakizunetarako:

Emakumeen Nazioarteko Eguna: **"Bizkaiaiko Arkeologoak"**.

MARTXOA

Kostako museoan hilabetea: **"Bizkaia eta itsasoa duela 500 urte"**.

Zientzia astea: kontserbazio-laborategia eta ikerketa-aretoak.

AZAROA



ESKOLA-PROGRAMA

Irakaskuntza arautuaren osagarri bat da, Bizkaiko ikastetxeei eskaintzen zaiena. Aurtun, COVID-19ak ekarritako egoera berrira egokitu da eta, hortaz, aurrez aurreko tailerrak eskaintzeaz gain, ikastetxeetan egiteko tailer birtualak eta museoan zehar bakarka egiteko bisita autogidatuak diseinatu dira.

| **Haur Hezkuntza:**

"Kutxa Magikoa".

| **Lehen Hezkuntza:**

Aztarnategi bateko indusketa-tailerra.

BERRIA Tailer birtualak, ikastetxeetan egiteko, osasun-alertak iraun bitartean.

BERRIA Aurrez aurreko tailerrak Bilboko ikastetxeetan, haiek eskatuta.

| **Bigarren Hezkuntza:**

"Paisaia aldakorak", bisita pertsonalizatuak.

BERRIA **Bisita autogidatuak**, museoak bakarrik edo lagun-talde txiki batekin ezagutzeko.



IRAILA-EKAINA





HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

Kontuan hartuta museoaren xedeetako bat hezkuntza dela, askotariko jarduerak programatu ditugu oporraldian haurrentzat, museoetara, arkeologiara eta historiara ingura daitezen, beren ondarea balioesten ikasteko.

| Familientzako tailerrak:

3-5 urteko haurrak: Ezberdina hiru hilabeteen behin.

6-12 urteko haurrak: "**Arkeologo egun batez**". Hilabeteko lehen igandean eta gainerakoetan beste tailer batzuk egiten dira.

| **Arkeouda:** Museoaren udalekuak.

| **Kanpoko udalekuak:** Kanpoko udalekuetarako tailerrak.

| **Aste Santua:** Haurrentzako tailerrak.

| **Zientzia Astea:** Arkeologia eta Paleontologia, EHUrekin elkarlanean.

| **Arkeogabonak:** Haurrentzako tailerrak Gabonetan.

HILEKO LEHEN LARUNBATEAN

HILEKO LEHEN IGANDEAN

EKAINA-ABUZTUA

UZTAILA

APIRILA

AZAROA

ABENDUA





HITZALDIAK, KONGRESUAK ETA MINTEGIAK

Museoa arkeologiako profesionalentzako topagune bat eta eztabaidarako leku bat da, horregatik, ibilbide luzea duten honako jarduera hauek programatu dira:

Arkeologia-topaguneak: *"Mikel Unzueta-aren omenez"*, César González, Jesús González Urquijo, López Quintana, Juanjo Cepeda eta Joseba Abaituarekin.

VII. mintegia: *"Museo arkeologikoak. Definizio berri baterantz?"*.

Zinema arratsaldeak Arkeologi Museoan: Arkeologia-dokumentalen proiektzioa, eta, gero, aditu baten iruzkinak.



IBILBIDEAK MUSEOTIK

Museoan erakutsitako materialak ezin dira ulertu jatorrizko lekuaren testuingururik gabe. Horregatik antolatzen dira hainbat irteera aztarnategi arkeologikak bisitatzeko, bildumaren esanahia ulertzen laguntzeko.

Bisita Arkeologi Museotik indusketa-prozesuan dagoen **aztarnategi** batera.

Segurako Erdi Aroko hiria eta Zeraingo meatzaritza-barrutiak (El Pobal Burdinolak eta Arkeologi Museoak antolatuta).

Ibilbide arkeologikoa: Guardia - Dolmenak, la Hoya eta Barbakana.



JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

APIRILA | Museoaren inaugurazioaren **XI. urteurrena**: "*Beste garai bateko musika*" kontzertua.

MAIATZA | **Museoen Nazioarteko Eguna**:
"*Bilbo Kantari*" musika.
"*Irakaskuntza Erromatar garaian*" antzezpena.

EKAINA | **Arkeologiaren Europako Jardunaldiak**.

URRIA | **Ondarearen Europako Jardunaldiak**.

AZAROA | **Iturfest**.




ARRANTZALEEN MUSEOA



Bermeoko Portu Zaharraren gainean dago Ertzila dorre historikoa, 1943an Monumentu Nazional izendatua. 1948tik bere barruan Arrantzaleen Museoa dago.

Munduan euskal arrantzaleen ingurua, bizitza eta lana soilik erakustera bideratuta dauden museo bakarretako bat da, eta haien bizitzak eta ohiturak, gremio-antolakuntza, itsasontziak eta denboran zehar arrantzarako eta arraina merkaturatzeko erabilitako teknikak deskribatzen dira bertan. Euskal arrantzaleek osatutako nukleo nagusia izan zuen Euzko Itsas Gudarostearen historia ere ezagutu dezakegu.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arrantzaleenmuseoa



Ercilla dorrea. Torronteroko enparantza 48370 BERMEO



946 881 171



arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus



@ArrantzaleenMuseoa




[arrantzaleenmuseoa](https://www.instagram.com/arrantzaleenmuseoa)



ERAKUSKETAK

Museoaren azken solairuan aldi baterako erakusketak daude, behin-betiko erakusketaren osagarri direnak, beti itsasoarekin, arrantzarekin edo Bermeoko herriarekin lotutakoak.



AKURIO ETA ELKANO 1519-1522.

Magallaes-Elkano espedizioan bizkaitarrak, postu garrantzitsuetan dakigun alderdi ezezagunenetako

euskaldunak, eta bereziki zeudela Lehen Mundu-Birari buruz bat da.

Bertan parte hartu zuten 31 euskaldunetatik 7 Bermeokoak ziren, eta 14 Bizkaiko beste txoko batzuetakoak, esaterako, Lekeitiokoak, Bilbokoak, Portugaletekoak eta Mungiaokoak.

Erakusketak nabigatzaile horien biografien inguruko ahal beste informazio biltzen du.



URRIRA ARTE

"Bizkaitarrak" lehen mundu-biran

BERMEO 1974-1976. SUSTRAIAK

AZAROTIK

Fede Merino argazkilaria Bermeoko eguneroko bizitza eta bertako jendea dokumentatu zuen orain dela 47 urte.

Bermeo, ordea, goitik behera aldatu da, haren izaeran eta izatean: arrantza-portua kirol-portu bilakatu da, txalupatik zibernetikara egin du jauzi eta beste hainbat aspektu aldatu dira.

Erakusketa honetako irudiek gure adinekoen memoria finkatzen dute eta oraindik jaio ez zireneka eraikitzen lagunduko du, gure sustraiei forma ematen die, gure oraina azaldu eta gure etorkizuna proiektatzen dute.





BISITA GIDATUAK

Urte osoan, Arrantzaleen Museoak bisita gidatuak eskaintzen ditu taldeentzat, eta data berezietan bisita tematikoak egiten dira.

| **Bisita gidatuak** "Akurio eta Elkano 1519-1522" aldi baterako erakusketara, Xabier Armendarizen eskutik. galdetu datak.

GALDETU DATAK

| **"Itsas bataioa, Gaztelugatxe":** **UZTAILA**

Bisita konbinatua Hegaluze itsasontziarekin. Museora bisita eginez Bermeoko jai-ohiturak ezagutuko dira, eta, hori osatzeko, itsasontzian irteera egingo da, Bermeotik Gaztelugatxeraino, Bizkaiko leku bereizgarrienetako batean itsasotik gozatzeko.



ESKOLA-PROGRAMA

IRAILA-EKAINA

Museoak hainbat bisita tematiko prestatu ditu, hezkuntza-maila bakoitzera egokitutakoak, erakusketa iraunkorreko hainbat gai jorratzen dituztenak:

| **Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza:**

"Arrantzaleen mundua".

"Arrainak eta balea".

| **Lehen eta Bigarren Hezkuntza:** "Arrantzatzeko teknikak Euskal Herrian".

| **Bigarren Hezkuntza:** "Euzko Itsas Gudarostea".



HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO TAILERRAK

Urtean zehar, museoak jarduerak eskaintzen ditu haurrentzat, haien ezaugarrietara egokitutakoak, beti museoeko gaiak jorratzen direlarik: itsasoa, arrantza, Bermeo.



| **Familiarentzako jarduerak:** 4 urtetik gorako haurrekin. Hilean larunbat bat.

URTARRILA-MARTXOA | AZAROA-ABENDUA

| **Haurrentzako jarduerak oporretan:** 5-10 urteko haurrentzat.

ASTE SANTUA | UDA | GABONAK





HITZALDIAK

"Akurio-Elkano 1519-1922. 'Bizkaitarrak' lehen mundu-biran" erakusketaren osagarri gisa, Xabier Armendarizek, hainbat hitzaldi emango ditu, erakusketan azaldutako informazioa osatzeko.

| "Mundu-birako bizkaitarrak".

URTARRILA

| "Nabigazio astronomikoa".

OTSAILA

| "Mairin Mitchell. Akurioren kronista".

MARTXOA

Hitzaldi guztiak **online** ikusi ahalko dira, Bizkaia Youtube kanalean.



BERRIA



JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

Arrantzaleen Museoak jarduera bereziak edo ate irekien jardunaldiak egiten ditu data zehatz batzuetan.

MARTXOA | Euskal Kostaldeko Museoak.

MAIATZA | Bermeoko Arrain Azoka.

| Museoen Nazioarteko Eguna.

UDA | "Bermeo Tuna" jarduerak.

| 1912ko Galernaren oroitza.

URRIA | Ondarearen Europako Jardunaldiak.

| Mareak Jaialdia.




EL POBALEKO BURDINOLA



Muskiz, Meatzealdearen bihotzean, El Pobaleko Burdinola dago, burdina-minerala metal bihurtzeko eta etxean erabiltzeko askotariko erremintak eta tresnak egiteko lan egiten zuen lantegi hidrauliko bat. XVI. mende hasieran eraiki zuen Muñatoneseko gaztelutik eskualdea menderatzen zuen leinu bandokideak: salazartarrek.

Burdinola abian egon zen 1965era arte. 2004tik irekita dago herritarrentzat, eta El Pobal Bizkaiko industriaren aurreko jarduerak garrantzitsuenetako biren museo bizia da: burdingintza eta errotaritza.

Inguru eder horretara inguratzen direnek Bizkaiko ikuspegi berezi batez eta aparatu hidraulikoen martxaz gozatu ahalko dute.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/elpobal



El Pobal auzoa, z.g. Muskiz-Sopuerta errepideaa | 48550 MUSKIZ



629 271 516



elpobal@bizkaia.eus



@ferrerialpobal



@elpobal



@elpobal



El Pobaleko burdinola



BISITA GIDATUAK

| **Bisita gidatuak** egiten dira burdinola- eta errota-multzora, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, ordubetero, asteartetik igandera.

| **Olako erakustaldia:** makineria abian jartzen da eta forja tradizionalaren erakustaldia egiten da. Urteko larunbat guztietan eta data berezietan.

| **"Burdinoletan zehar. Bizkaia, territorio ferrón"** erakusketarako **bisita monografikoak:** Erakusketa honekin bisitariak ikusi ahalko du zeinen balio apartekoa duen tradiziozko burdina-industriari lotutako ondare horrek, dokumentu argitaragabeen, argazki iradokitzaileen eta berregite-marrazkien bidez. Bisita bakoitzean ondare aberats eta askotariko horren alderdi ezberdin batean egingo da azpimarra. **Hileko lehen igandeetan** egingo dira. Emanaldietako bat **online** egingo da.



URTE OSOAN



LARUNBATAK | DATA BEREZIAK

OTSAILA | MARTXOA | MAIATZA |
EKAINA | IRAILA | AZAROA



ESKOLA-PROGRAMA

Haur Hezkuntzatik Unibertsitaterainoko ikas-leentzat eta denbora libreko taldeentzat. Asteartetik ostiralera.

| **Jarduerak eta material pedagogikoa:**

Burdinaren tailerra.
Pobal & Encartada. Bidaia bat teknologiaren bidez.
Basoak, ura eta energia.
Ogi eta talo tailerra.
Oinezko ibilbidea, Barbadungo errotetan eta burdinoletan barrena.
Esplorazio-ginkana.
Bisita gida didaktikoekin.
Euskara landuz

IKASTURTEA | OPORRAK



BERRIA | **Jarduera berriak:**



"Ondarea Oinez, Ondarea aire zabalean". Interpretazio-paseoak Muskizen: "Barbadungo esploratzaileak".

"Soinu-paisaiak. Ondarea zentzumenen bidez ezagutuz".

"Km 0 pizza". Sormenezko pizzak landu eta dastatu bertoko elikagai zaporetsuak erabiliz.



HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

El Pobalek Aste Santuan, Gabonetan eta urteko hainbat asteburutan haurrentzako honako jarduera hauek eskaintzen ditul:

- | **"Eskuak oretan" tailer gastronomikoa** eta parte hartzeko modukoen multzo bat da, guztiak burdinolako errotarekin zerikusia dutenak ("**Taloa familian**", Txaramelak emandako "**Sekulako pasta tailerra**" eta "**0 kilometroko pizza**"). Tailerrak urteko sei asteburutan egiten dira, baita Aste Santuan eta Gabonetan ere.
- | **"Errementariaren etxean jolasean" sutegian burdinarekin aritzeko tailer** bat da, El Pobaleko burdingileak, Luisma Turuelok gidatua. Urtean bost larunbatetan egingo da, baita Aste Santua eta Gabonetan ere.
- | **"Olentzero El Pobalen"** abenduko lehen hiru asteburuetan.

HITZALDIAK

Beren ikerketa-alorretan erreferentzia diren emakumeek gidatutako hitzaldi sorta bat, gure ikuspegia aberastuko dutenak historiaren eta ondare kulturalaren inguruan egingo dizkiguten ekarpenekin



"Burdina Erroman". Ana Martínez arkeologoak emandakoa.

"Paisaia memoria da...". Burdinaz Barbadun eta Lea ibaien arroetan forjatutako paisaiak. Ainara Martínez eta Ainara Apraiz historialariek emandakoa.

"Emakumea izatea Erdi Aroan" Muñatones gazteluan. Janire Castro eta Irene López historialarien eskutik.





| **"Barbadungo burdinolen ibilbidea".** Edizio berri honetan Olabarrietako fanderiaren hondar txundigarriak erakutsiko dira, Kolitzaren ur ertzean, Barbadunen goi-ibilguan. Ilustrazio garaian munduko burdinolak berritzeko saiakeren berri ematen digun asmakizun bat da.

MAIATZA

| **"Bisita gidatua Sestaoko Labe Garaia".** El Pobalek Bizkaiko Labe Garaiei egindako omenaldia, IOHLEerekin batera. 2021ean Bizkaiko "itzalaldi siderurgikoaren" 25. urteurrena izango da, María Ángeles labe garaiak orduan egin baitzituen bere azken lanak. ekaina.

EKAINA


| **Burdinolako goiza** "Burdinolak, dorreak eta baselizak". Juan Manuel González Cembellínekin eta José María Izagarekin batera, Oxillaineko burdinola, Barroetako dorrea eta Arretxinagako San Miguel baseliza bisitatuko dira, baita Etxebarriako Antsoategi multzoa ere.

UZTAILA

| Arkeologi Museoarekin **batera egindako irteera.** Aurtengo bisita Segurako Erdi Aroko hirira eta Zeraingo eta Mutiloako meatze-multzora egingo da.

IRAILA

| **"Bizkaiko forja artistikoaren irteera"** 2. edizioa. Jesús Muñiz historialariak gidatua. Egiturazko burdina eta burdina apaingarria, Erromanikotik Historizismora bidaiatzeko aukera emango diguna, zeinarekin forjatu baitziren Bizkaiko monumentu nagusietako batzuetako pulpituetoak jabaloiak, gurutzeak, iltzeak, burdin-langak, burdin-hesiak eta haize-orratzak.



| JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

ARTEA ETA LITERATURA GURE ONDAREAN:

MAIATZA | AZAROA

| **"Peru Abarkako olagizonak"**: Bisita tematikoa. Juan Antonio Mogelen eleberriko testu adierazkorretatik abiatuta, burdinola zahar baten lan-giroan murgilduko gara, tiratzaileen, urtzaileei, mazolarien eta burdina egiteko zeregin latzean parte hartzen zuten beste lanbide batzuk zituztenen egunerokoa ezagutzeko.

MAIATZA



| **"Bereterretxen khantoria"** Muñatones gazteluan: Alabazan taldeko Bego Gómezek gitarra jo bitartean Erdi Aroko olerki eder hori errezitatuko du, Zuberoatik gure Loperen garaiko bando-gerraz ari den poema. Aurrez aurrekoa eta **online**.

URRIA



| **"Vulkanoren sutegia"**. El Pobal bezain inguru inspiragarriak balio izango du Velázquez margolariaren obra bereizgarri horrek ezkutatzen duen kontakizuna deszifratzeko. Ana Prestamero arte-espezialistak gidatuko du jarduera hori, hitzaldiaren eta performancearen artekoa. Aurrez aurrekoa eta **online**.

APIRILA

MONUMENTU ETA LEKU HISTORIKOEN NAZIOARTEKO EGUNA:

| Interpretazio-paseoak Muskizen **"Ondarea eta natura konektatuta"**: Oinezko ibilbide berriak, El Pobal, Muñatones gaztelua eta Pobeña-Kobaron meatze-ingurua, esangura handiko hiru leku, historiak eta Muskizko eta inguruko tradizioez hitz egiten diguten beste ondare-elementu batzuekin lotzen dituenak. Ibilbide horien helburuak dira: Naturarekiko kontaktua, inguruaren balio ekologiko eta historikoaren inguruko ezagutza zabaltea eta ondare natural eta kulturaren zaintza sustatzea eta horren inguruan sentsibilizatzea. Bi ibilbide dira:

1. **"Burdinazko itsasoa"**: Pobeñatik Muñatonesera.

2. **"Barbadungo esploratzaileak"**: San Juanetik El Pobalera arte, ibai ondoko bidetik.

BERRIA

TAILERRAK ETA ERAKUSTALDIAK:

MARTXOA

| **Uraren eta Basoen Nazioarteko Eguna**: *"Ura eta Basoa"* parte hartzeko ingurumenari buruzko tailerra. Zuhaitzak landatuko dira, *txondor* batekin landare-ikatzak egingo da, eta *aizkolarien* zuzeneko erakustaldi bat ere bai.

EKAINA

| **Burdinolaren 17. urteurrena**: *"Artisau-ogia egitea"*, El Pobaleko ospakizunetako klasiko baten, *txoripanen*, erakustaldia eta dastatzea.

URRIA

| **Hitzaldia eta erakustaldia** *"Un dron entre ferrerías. Water makes iron"*. Horrela egin zen *"Burdinura"* ikus-entzunezko materiala, *"Burdinoletan zehar"* erakusketa irekitzen duena. 2020ko Veneziako Geo Film Festival jaialdian saria jaso zuen, epaimahaia dokumental onenari egindako aipamen bereziarekin. Film laburraren sortzaile Santi Yaniz eta Anton Lazkanoren hitzaldia, eta zuzeneko erakustaldia droneekin.

AZAROA

| **San Martin, oletako langileen zaindaria**: *"Bi burdingile-belaunaldiren arteko elkarrizketa"*, Luis Padurari omenaldia. Topaketa eta erakustaldi berezia sutegian, Oier Elorduyk eta Luis Padurak berak egina.

ARGITALPENAREN AURKEZPENA:

ABENDUA

| **"Olako ondarea paperean. Luis Barreireoren landa-koaderno"**. 1907 eta 1919 arteko Euskal Herriko arkeologia industrialaren esparruko lan aitzindari baten azterketa eta argitalpena. abendua.






EUSKAL HERRIA MUSEOA



2021 urte berezia izango da Euskal Herria Museoarentzat, **30. urteurrena** ospatzen ari baita.

Euskal Herria Museoaren egoitza Alegria edo Montefuerte jauregi barrokoan dago, Gernikako Arbolaren ondoan. 1936ko bonbardaketaren ondoren zutik gelditu zen eraikin historiko bakanetako bat da. Bizkaiko Foru Aldundiak jauregia eta bere lorategiak konpondu zituen, eta Euskal Herria Museo eta Europako Herrien Parke bihurtu.

Museoak lau solairutan antolatutako erakusketa du; bertan, Euskal Herriko bizimoduak baldintzatzen dituen inguru fisikoa ezagutu ahaliko du, baita egungo egituraketa politikoa ekarri duten bilakaera historikoa eta gertakizunak ere. Horrez gain, Euskal Herriko herri-kirolez, folkloreaz, festaz, musikaz, dantzez, sinesmenez eta mitoez gozatu daiteke



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa



Alegria Jauregia. Allendesalazar, 5 48300 GERNIKA-LUMO



946 255 451



euskalherriamuseoa@bizkaia.eus



@EHMGernika



@EHMuseoa



@ehmuseoa



ERAKUSKETAK

Museoaren azken solairuan, haren egurrezko egitura txundigarriaren azpian, 30 urtez aldi baterako erakusketa ugari egon dira, askotariko gaietakoak, beti erakusketa iraunkorraren osagarri. Urte berezi honetan Ernest Hemingwayek Euskal Herriarekin zuen lotura izango dira protagonista.



HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA

APIRILETIK

Erakusketa hau aukera paregabea da Ernest Hemingwayk Euskal Herriarekin eta bertako jendearekin izan zuen harreman bizia ezagutzeko. Berriz ere jarriko dugu idazlea bere bizitzako garai horretan, hemengo kulturarekin eta jendearekin harremana izan zuenekoa.



BISITA GIDATUAK

Museoak talde mota ezberdinentzako bisita gidatuak eskaintzen ditu, eta diskurtsoa bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen du. Bisitak euskaraz edo gaztelaniaz egiten dira.

Museoaren bisita orokorra: Euskal Herriko historia eta kultura.

Erakusketa iraunkorraren barruko bisita tematikoak: Emakumeen artean paseatzen, Euskal Kultura, Euskal Arte Kostunbrista, Euskal Gastronomia, Artzaintza Euskal Herrian, Alegria Jauregiko Maiorazkoa, Ilustrazioa Euskal Herrian eta Euskara.

Paseoa Museoko lorategietan barrena: Lau urtaroetan, Iñaki Gonzalo biologoak bisita gidatu botanikoak egiten ditu Euskal Herria Museoko eta Europako Herrien Parkeko lorategia ezagutzeko.

Aurten **bisita ornitologikoa** ere izango da, parkean bizi diren txorien kantu ezberdinen aitzakian inguruko hegaztiez hitz egingo da.

BERRIA



ESKOLA-PROGRAMA

Ikasturtean zehar, asteartetik ostiralera, museoak jarduerak eskaintzen ditu, gai askotakoak, hezkuntza-maila bakoitzera egokitutakoak, beti ere museoak jorratzen dituen gaiekin lotuta.

| Haur eta Lehen Hezkuntza:

"Basoak Historian". Agenda 21.

| Lehen Hezkuntza:

"Euskal Kultura jokoa".

| Lehen eta Bigarren Hezkuntza:

"Altxorak eta Kartografia".

"Foruak eta batzarrak". Gernikako Batzar Etxearekin elkarlanean.

"Zesta bizi". Gernikako Jai Alai frontoiarekin elkarlanean.

Material pedagogikoa: Museo inguruko zuhaitzak.



IRAILA-EKAINA

HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

Urtean zehar, museoak haurrentzat jarduerak eskaintzen ditu, haien ezaugarrietara egokitutakoak, beti museoeko erakusketa edo une horretan ikusgai dagoen erakusketan jorratzen diren gaiak landuz.



| **Familiarentzako jarduerak:** 4 urtetik gorako haurrekin. Hilean asteburu bat.

| **Haurrentzako jarduerak oporretan:** 5-10 urteko haurrentzat.

URTARRILA-MARTXOA | AZAROA-ABENDUA

ASTE SANTUA | UDA | GABONAK



JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

Orain arte deskribatutako guztiaz gain, Euskal Herria Museoak jarduera original ugari eskaintzen ditu, ikuspegi ezberdina ematen dutenak eta museoko diskurtsoaren edukia osatzen dutenak. Batzuk berritzaileak dira, eta beste batzuk errotuta daude data berezien egutegian.

GALDETU DATAK

| **"Literatura eta Ondarea"** euskaraz mintzo.

BERRIA

Aurten, Museoak euskarazko irakurzaletasuna eta ondarea uztartzen dituen jarduera bat jarri du abian. Literaturako obra erabakigarriak eta ondarea biltzen ditu, giro goxoan, eta, batzuetan, autorearen presentziarekin (Miren Agur Meabe, Toti Martínez de Lezea eta abar).

MARTXOA

| **Euskal Kostako Museoak** eta **Emakumeen Hilabetea**.

APIRILA

| **"Trikitixa"** kontzertu pedagogikoa.

| **Gernikako bonbardaketaren urteurrena**.

MAIATZA

| **Museoen gaua**.

| **Museoen Nazioarteko Eguna**.

UZTAILA-ABUZTUA

| **"Armosuak euskaraz"** euskaraz mintzo.



| **30. Urtemuga EHM "Gu Agustina"** dantza-ikuskitzuna.

| **"Hemingway & Euskal Herria"** erakusketarekin lotutako jarduerak: ibilbideak, ipuin-kontaketak, zine foruma, iruzkindutako irakurketak.

| **Kontzertuak** museoko lorategian.

IRAILA

| **"Bertsosaioak Lorategian"**.

| **"Irrintzi"** tailerra.

URRIA

| **Ondarearen Europako Jardunaldiak**.




LA ENCARTADA FABRIKA-MUSEOA



La Encartada SA 1892an sortu zen, eta aktibo egon zen 1992ra arte. Kapital soziala bost indianok jarri zuten, Mexikon dirutza egin zuten bost emigratzaile bizkaitarrek. Horietatik hiru Balmasedakoak ziren. Artilea landu zen bertan eta askotariko produktuak egiten ziren. Txapela zen produktu nagusia. Fabrikaren inguruan langile-auzo txiki bat garatu zen, langileentzako etxeekin, kaperarekin, eskolarekin, zuzendariaren etxearekin eta abarrekin.

2007tik La Encartada Fabrika-Museoa industria-museo bat da. Eraikinak, makineria eta langile-kolonia gaitasun oroitarazle handiko multzoa dira, eta bisita egitean Iraultza Industrialaren hasierara eramango gaitu. Haren balio nagusietako bat makineria bilduma da, ia guztia ingelesa, XIX. mendearen amaierakoa eta XX. hasierakoa.

Ia aldagatarik gabe mantendu dira haren irudia eta hornidura teknologikoa, eta ekoizpen-prozesuko elementu guztiak daude bertan, lehengaiak jasotzen ziren unetik hasi eta paketeratze- eta bidaltze-prozesura artekoak. Osotasun tekniko hori eta kontserbazio-egoera ezin hobe tarteko, La Encartada mota horretako leku bisitagarri paregabe bat da, 2019tik ERIH Industria Ondarearen Europako Ibilbidean sartutakoa, "anchor point" edo erreferentzia-puntu gisa.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada



El Peñeco auzoa, 11 48800 BALMASEDA



946 800 778



laencartada@bizkaia.eus



@laencartada



La Encartada Fabrika-Museoa





ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK



Museoan areto eta espazio egokituak daude aldi baterako erakusketak hartzeko, bai bertan ekoitzitakoak bai kanpokoak. Gai askotakoak izan daitezke: ehunak, moda, industria, ondarea, artea eta abar. Bertarako bisita museokoarekin batera egin daiteke, eta bateragarriak dira, edo, bestela, aldi baterako erakusketara bakarrik joan daiteke, hala nahi izanez gero.

“**Atzoko eskolak: La Encartada eta Balmaseda**”.

IRAILTIK

Erakusketa hori, oso-osorik museoan sortutakoa da, Balmasedan XVIII. mendearen bukaeratik XX. mendearen erdialdera arte egindako irakaskuntza- eta ikaskuntza-ekimenen historian oinarrituta dago. Herriko eskolen eta ikastetxeen bilakaeraren itxura nagusia azaltzea da helburua: nola jaio ziren eta nola garatu diren horretarako erabilitako espazioak eta, geroago, eraikinak.

Erakusketak testigantza fisikoak eta dokumentalak jasoko ditu, gehienbat El Peñueco auzokoak, non La Encartada S.A. enpresak bere eskola izan zuen.



BISITA GIDATUA

La Encartada Fabrika-Museorako **bisita beti gidarekin egiten da**. Gaur egun, murgilduta gauden pandemiaren ondorioz, “**bisitak express**” izango dira, hau da, orain artekoak baino laburragoak. Bisita aurrez **erreserbatu** beharra dago.



Ikasturte osoan zehar hezkuntza-maila guztietara egokitutako bisitak egiten dira, jarduera osagarrekin.

HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

Familiako jarduerak:

| **"QaDrilla": Escape Rooma**, 16 urtetik gorakoentzat.

| Familiarentzako **tailerrak** (igande bakoitzean tailer ezberdinak, aurretik galdetzea komeni da).

| **Haurrentzako tailerrak**. Asteartetik ostiralera:

| **Pazkoa Txokoa**: Tailerrak Aste Santuan eta Pazko Astean.

| **Encartuda**: Udaleku tematikoak.

| Haurrentzako tailerrak **Gabonetan**.

URTE OSOAN

LARUNBATAK

IGANDEAK

OPORRAK

APIRILA

UZTAILA

ABENDUA





JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

MARTXOA

Emakume Langilearen Eguna:

| Ipuin-kontalaria: Ana Apika "Emakumeak=Kontatzen". Familientzat.

APIRILA

Monumentu eta Leku Historikoen Eguna:

| Bisita gidatu konbinatua: Balmasedako herria eta La Encartada Fabrika-Museoa.

MAIATZA

| "La Encartada Moda": Moda-topaketa.

| Museoen Nazioarteko Eguna.

EKAINA

| "La Encartadari buruzko 100 galdera bitxi" liburuen aurkezpena.

URRIA

| Ondarearen Europako Jardunaldiak.



AZAROA

| **Erakustaldien hilabetea:** Hilabete osoan zehar ehundegiaren, irutearen, tailer mekanikoaren eta ehungintzaren erakustaldiak egingo dira.




MUÑATONES GAZTELUA



Muñatones gaztelua eraikuntza-prozesu luze baten emaitza da: XIV. eta XV. mendeetan zehar eraiki baitzen, Euskal Herrian izandako bando arteko guden garaian.

Bizkaiko arkitektura-ondarearen elementu nabarmenenetako bat da, horregatik, Monumentu Multzo izendatu zuten, haren balio historiko paregabea eta kontserbatutako hondarren kalitatea aitortzeko; izan ere, Bizkaian gaztelu izendapena merezi duen dorre bakarra da. Gure historiako pertsonaia berezietako bati lotuta dago, Lope García Salazar arma- eta letra-gizonari, "Istoria de las Bienandanzas e Fortunas" ezaguna idatzi zuenari.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus (Leku interesgarriak)



San Martín auzoa | 48550 MUSKIZ



629 271 516



elpobal@bizkaia.eus



@ferreriaelpobal



@elpobal



El Pobal burdinola



BISITA GIDATUAK

EKAINA-IRAILA

Udako igande guztietan egiten dira Muñatones gaztelurako bisitak. Egun bakoitzean, lau saio eskainiko dira: 10, 11, 12 eta 13etan.



ESKOLA- ETA UDALEKU-PROGRAMA

MAIATZA-URRIA

Asteartetik ostiralera, gaztelua eskolako taldeei erakusten zaie, bisita gidatuen eta "Gaztelutxiki" bezalako tailerren bidez.

BERRIA | **Erdi Aroko ogibideen tailerra.**

BERRIA | **"Jolas ordua, hobeto Muñatonesen"** Ondarea aire zabalean, interpretazio-paseoak ikasleentzat, ikasturte osoan.





JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

MARTXOA

| **"Emakumea izatea Erdi Aroan"**: Hitzaldia eta bisita genero-ikuspegitik.

| **Euskal Kostaldeko Museok.**

APIRILA

| **Monumentuak eta leku historikoak**: Gaztelura bisita ondarea eta natura uztartzen dituen interpretazio-paseoaren barruan: *"Burdinazko itsasoa, Pobeñatik Muñatonesera"*.

| **Aste Santua**: Irekiera eta ezohiko bisita gidatuak.

MAIATZA

| **Museoen Nazioarteko Eguna**:



"Bereterretxeren khantoria". Zuberoko Erdi Aroko poema horren errezitaldia, Alabazaneko Bego Gómezek narratua eta kantatua. Aurrez aurrekoa eta **online**.

EKAINA

| **San Juan jaia**:

"Magia duen gaztelu bat". Haurrentzako magia-ikuskizuna, Txukulinen esku.



MUÑATONESEKO AZPIJOKOAK

UZTAILA

Bisita antzeztua, Bego Gómezek eta Joaquín Pontek, Alabazaneko aktoreek antzeztua eta Juan Manuel González Cembellínek gidatua.



IRAILA

| **"Moda-iragana"**, berregite historikoa. Erdi Aroko emakumeen soinekoen eta burukoen desfilea, Otsolur elkarteko Ainhoa Gómezek zuzendua.





LOPEREN DIETA

URRIA

Pedro Castaños paleontologoak gidatutako jardunaldia. Erdi Aroko gastronomiako plater tipiko batzuk dastatuko ditugu.

URRIA

| Ondarearen Europako Jardunaldiak.

AZAROA

| “*Muñatoneseko San Martin. Dorrea, baseliza eta portua*”: Leku horretako toponimiaren eta bertarako erromesaldiaren inguruko bisita tematikoa.



SANTIMAMIÑE



Santimamiñeko haitzuloa Gizateriaren Ondare izendatu zuen UNESCO, eta erreferentziatzeko leku bat da gure lurraldean. Hainbat hamarkadatan, Bizkaiko belaunaldiak bata bestearen atzetik ibili izan ahal dira bertako galerietan barrena, hango hormetako pinturak eta grabatuak behatuz.

100 urtez bisitak egin ondoren, haitzuloa, altxor geologiko, artistiko eta arkeologiko bat, ondo garbitu behar izan zen, eta kontserbazio-lanak egin behar izan ziren. 2004tik gaur egunera arte, hogeit hamar espezialistak baino gehiagok osatutako diziplina anitzeko talde batek jarraitu egiten du oraindik ere Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako ikerketekin.

Gaur egun, haitzuloa gidekin bakarrik bisita daiteke. Haitzuloaren ahoan bertan, eta barruko harreran, ikusleek koba dagoen paisaia txundigarria, bertako lehen biztanleek zapaldu zituzten zoruak eta hura egokitzeke eta bertan bizitzeko egin zituzten lanak ezagutzeko aukera izango dute. Telebista-pantaila batean, galerietan diseinatutako pinturak ikusiko dituzte.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/santimamiñe



Basondo auzoa, z.g. | 48315 KORTEZUBI



944 651 657 / 944 651 660




santimamine@bizkaia.eus



@santimamine



@santimaminekoba



Pandemiak iraun bitartean, bisiten edukiera eta iraupena murriztu egingo da, eta haitzuloaren harrerara bakarrik sartu ahalko da. Bertan, gainera, 2D-ko erreplika ikusiko dute bisitariek.



ESKOLA-PROGRAMA

Bisitariek ikasketa-zikloari egokitutako bisita parte-hartzailean datza.

| Lehen eta Bigarren Hezkuntza:

Bisitak unitate didaktikoekin osatzen dira, irakasleek ikasleekin prestatzeko eta bisitaren ondoren bertan jasotako ezagutza finkatzeko.

| Historiaurreko bizitzaren inguruko kontakizun laburren **lehiaketa**.

IRAILA-EKAINA





| Santimamiñen doako **jarduera pedagogikoak** egiten dira Historiaurrearekin lotuta, **7 eta 12 urte** arteko haurrentzat.

Zientzia Astea: Arkeologia eta Paleontologia, EHUrekin eta Arkeologi Museoarekin elkarlanean.



JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

MARTXOA

| **Emakumearen eguna** - bisita berezia: "*Emakumea Historiaurrean*".

| **Euskal Kostako Museok** - bisita berezia: "*Santimamiñeko itsas-baliabideak*".

APIRILA

| **Monumentu eta Leku Historikoen Eguna**.

MAIATZA

| **Museoen Nazioarteko Eguna** - bisita bereziak: "*Bisita animatua*" eta doako bisita gidatua.



UZTAILA

| **Antzezpena** haizuloaren ahoan eta doako bisita gidatua.

AZAROA

| **Gizateriaren Ondarearen Eguna**. Historiaurreko teknika artistikoen erakustaldiak, Diego Garaterekin.

| **Irteera**: Ekainberrirako bisita.

ABENDUA

| **Ipuin-kontalaria**.



TXAKOLIN MUSEOA TXAKOLINGUNEA



Ikus-entzunezko eta material interaktiboen bidez, Bakioko Txakolinguneak berezko izaera duen ardo berezi horren ezaugarriak eta hura egiteko prozesua ezagutzeko aukera ematen digu.

Azken urteotan txakolina eta upeltegiak eraldatu dituzten historia eta eboluzioa ezagutuko dugu. Haiek, nahiz eta tradizioei heltzen dieten, ez diete muzin egiten teknologia berriei eta, ahaleginez eta lan eginez, aitortza eta izen ona lortu dute. Gainera, ikusi daiteke, txakolin zuria ezagunena eta ekoizpen handienekoa bada ere, ardotegi batzuek txakolin beltza edo gorria "oilar begi" deritzona ere egiten dituztela, ekoizpen txikiagoa duten arren, bereziak eta apartekoak direnak.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea



Basigoko Bide Nagusia, 3 48130 BAKIO



946 028 513



txakolingunea@bizkaia.eus



@Txakolingunea



@txakolingunea





BISITA GIDATUAK

Txakolin Museoa-Txakolingunera bisita beti gidarekin egiten da, eta, amaieran, txakolin bat dastatzen da.

Hainbat aukera daude:

1. Bisita orokorra, txakolin bat barne.
2. Bisita gidatua, bi txakolin edo txakolin eta pintxo bana barne.
3. Bisita gidatua, bi txakolin eta bi pintxo barne.



ERAKUSKETAK

Urte osoan zehar, erakusketa iraunkorraz gain, Txakolin Museoa-Txakolingunean gai askotako erakusketak izaten dira.

| KOMIKIA

"Komikia" erakusketak, komisario-lanetan Kike Infame eta Mikel Begoña dituenak, azken urteetan euskal komikiaren inguruan egindako ibilbide luzeena proposatzen da.

| BAKIOKO MARGOZALEAK

Erakusketa horretan Bakioko hainbat artistaren lanez gozatu ahaliko da.

| BIRIBILAK MENDIETAN. SELES-KORTAK-SAROIAK

Kortak, edo sarioiak mendiko lursailak dira, Euskal Herrian esparru biribil itxurakoak, erdian tamaina handiko harri bat dutenak. Erakusketak haien jatorria, erabilerak eta garapen historikoa aztertzen ditu.

EKAINERA ARTE

UZTAILA-IRAILA

URRITIK





HAURRENTZAKO JARDUERAK

Txakolin Museoa-Txakolingunea jarduerak eskaintzen ditu **4-12 urte** arteko haurrentzat, **hilean igande batean** eta **Inauterietako, Aste Santuko, udako** eta **Gabonetako** oporretan.



| JARDUERA ETA DATA BEREZIAK

Data berezi batzuk daude Bakioko Txakolin Museoa-Txakolingunearen egutegian, eta horietan jarduera bereziak eskaintzen dira, erakusketa iraunkorren tematika eta bisitak osatzen dituztenak.



DASTATZE IRUZKINDUAK

Txakolin Museoa-Txakolinguneko jarduera arrakasta-tsuenetako bat da dastatze iruzkinduena. Urtean zehar hainbat ardoren dastatzeak eta uztartzeak egiten dira, esperientzia handiko sommelierrekin. Data horietako batzuk dira honako hauek:

- | | |
|-----------------------------|---------|
| 1. San Joseko dastaketa. | MARTXOA |
| 2. Ardoen dastaketa berezia | MAIATZA |
| 3. Udako dastaketa. | UZTAILA |
| 4. Gabonetako dastaketa. | ABENDUA |



SAN JOSE EGUNA

| Euskal Kostaldeko Museoak.

| Emakumearen Eguna: "Emakumea eta Txakolina" mahai-ingurua.

MAIATZA

| Museoen Nazioarteko Eguna.

MAIATZA-EKAINA

| "TXAKOMIK".

URRIA

| Ondarearen Europako Jardunaldiako.

AZAROA

| Uribe Gastronomiko Jardunaldiak.



ONDARE ARETOA

Erakusketa-espazio honetan, Bizkaiko lurraldearen jardura kulturala erakusten da. Bertan edo kanpoan sortutako erakusketen bitartez Bizkaiko memoria eta ondare historikoa azaltzen dira.



www.bizkaikoa.bizkaia.eus/ondarearetoa



María Díaz de Haro, 11 48013 BILBAO



944 067 737



ondare.arettoa@bizkaia.eus



@ondarearetoa

| ERAKUSKETAK

| JUAN MANUEL LUMBRERAS.

Arte-galeria. XXV. URTEURRENA:

Billboko Juan Manuel Lumbreras galeriaren XXV. urteurreneko oroitzera-erakusketa, arte garaikidearen inguruan egindako lanaren aitortza gisa.

Erakusketak 60 pieza inguruko obra-sorta jasotzen du (pinturak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak eta argazkiak), haren proiektu artistikoa errepasatzen dutenak.



| ANTONIO TRUEBA (1819-1889).

BIZKAIKO KRONISTA:

Bizkaiko Batzar Nagusiekin eta Abellanedako Enkarterrietako Museoarekin elkarlanean -2020an azken horretan aurkeztu zen-. Erakusketak Antonio Truebaren (Montellano, Galdames, 1819) figuraren eta lanaren berrirakurketa modernoa aurkezten du. Bizkaiko Jaurerriko kronista eta artxibozaina izendatu zuten 1862an, Probintziako Aita 1876an. Garai hartako intelektual ospetsuenetakoa izan zen: poeta, nobelagilea, kronista, historialaria eta kazetaria.



| JARDUERAK

Topaketak: artista eta erakusketarekin lotutako eragileekin. Aurretik **izena eman behar da beti**, edukiera mugatua izango da eta osasun-autoritateek une bakoitzean COVIDari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak bete beharko dira.




REKALDE ARETOA

rekalde

Espazio hau praktika artistiko garaikideen ezagutza, harrera eta dibulgazioan sakontzera bideratuta dago, 2021ean **30 urte** egingo dira 1991an sortu zenetik.

Bere ibilbidea gure mugen barruko eta kanpoko ekoizpen garaikidearen ikerketarekin lotuta dago. Gaur egun artearen ardatz diren eztabaidetan oihartzuna har dezaketen lan-proposamenen bidez. Rekalde topagune bat da, arte garaikiderako ezagutza- eta hausnarketa-leku bat.

rekalde 30 urte



www.salarekalde.bizkaia.net



Rekalde zumarkalea, 30 48009 BILBAO



944 068 532



salarekalde@bizkaia.eus



@salaRekalde



@salaRekalde



@salaRekalde



Rekalde aretoa

| AGUSTÍN IBARROLA, naturalki:

UZTAILERA ARTE



Agustín Ibarrolaren obran artearen eta naturaren arteko harremanaren inguruko funtsezko erakusketa da. Artistari egindako omenaldi eta aitortza bat da, bere 90. urtebetetzea dela-eta. Haren sorkuntza-unibertsuaren interesa, bere begirada pertsonala eta bere irudikariak naturan duen adierazpena irudikatzen du.

| ERTIBIL BIZKAIA 2021:

UZTAILA-URRIA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ERTIBIL BIZKAIA arte bisualen erakusketa ibiltariak XXXIX. edizioa du aurtengoa. Sorkuntza-lana Bizkaiko lurraldean egiten duten artista berriei laguntzeko eta haiek sustatzeko helburua du.

| IDOIA MONTÓN:

URRIA

1993an Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastikoen beka eskuratu zuen artista honen ibilbideari buruz egindako erakusketa indibidual osoena da, eta asmo handienekoa, orain haren talentuari berriz heltzen diona. Aretoarentzat Javier Sánchezek Rekaldek egin ditu erakusketaren komisariotza-lanak, eta bertan egungo arte-panoramako artista bizi eta esanguratsuenetako baten margolanak bilduko dira.

| BARRIEK 2021 - BFA bekak:

Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastikoen sorkuntza-bekak jaso dituzten artista sorta baten erakusketa-programa da hau.





JARDUERAK*

***Aurretik izena eman behar da beti**, edukiera mugatua izango da eta osasun-autoritateek une bakoitzean COVIDari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak bete beharko dira.

| **Bisita iruzkinduak:** Ostegunetan, jaiegunetan izan ezik, Rekalde aretoak bisita iruzkinduak eta ikusleekiko elkarriketen bidez artistaren eta erakusketako obren testuingurua emateko ibilbideak eskaintzen ditu.

IRAILA-EKAINA

| **Topaketak:** Elkarriketak erakusketetako protagonistekin, artistekin eta komisarioekin, ikusleak sorkuntza-prozesuetara, eta haien lanaren gakoetara eta kontzeptuetara hurbiltzeko aukera dute jarduera hauen bidez.

URTARRILA-ABENDUA

| **Familientzako tailerrak:** Familiarentzako proposatutako jarduerak, ibilbideak eta dinamikak, topagune bat eta praktika artistikoarekiko interakzioa sortzeko.

IRAILA-EKAINA

1. **Elkarriketak** [3-6 urte]

2. **Familientzako tailerra** [4-11 urte]

3. **Tailerrak oporretan** [3-11 urte]

ASTE SANTUA | UDA | GABONAK

| **PROGRAMA BEREZIAK:**

IRAILA-EKAINA

1. **ECOS:** Sorkuntzako bitartekaritza-proiektu bat, Rekalde aretoaren erakusketen inguruko hausnarketa bat bilatzen duena ikus-entzunezko, soinuazko edo askotariko beste proposamen batzuetatik abiatuta.

2. **CANCHA LIBRE:** Bitartekaritza-talde berri bat da, 16 eta 23 urte arteko gazteek osatua, modu autogestionatuan lan egiten duena eta kideei egindako jardueren eta Rekalde aretoko erakusketetara hurbiltzeko moduen inguruko erabakiak hartzen usten diena.

3. **HARRI, ORRI, AR:** Arte-ikerketako mintegia, EHUko laSia ikerketa-taldearekin elkarlanean egindakoa, *"Praktika artistikoan oinarritutako arte-ikerketarako formatu-esperimentazioa"* proiektuan txertatutakoa.



IBILBIDE HISTORIKOAK

Bizkaiko Foru Aldundiak bisita gidatuen sorta bete-betea eskaintzen du, Bizkaia-ren historia ezagutzeko eta hartaz gozatzeko aukera ematen duena.

Neolitikotik hasi eta industria aurreko garaia arte, kultur eskaintza erakargarri honek Bizkaiko garai garrantzitsuenak ezagutaraziko dizkigu, baita lurraldea bultzatu zuten eta haren ezaugarri nagusiak izan ziren jarduera ekonomiko eta politikoak ere. Hori guztia, gainera, Bizkaia-ak eskaintzen dizkigun paisaia eta natura jori ikusgarrie-kin.



Informazioa eta erreserbak:



www.bizkaikoa.bizkaia.eus



688 856 689



ibilbideak@bizkaia.eus

ARROLAGUNEA

Arrolako Opidumaren interpretazio-zentroa.

Urte osoan asteburuetan irekia dago. Aste tartean taldeentzat eta ikastetxeentzat soilik zabaltzen da.



URDAIBAI


Bisita gidatuak uztailiko eta abuztuko egun guztietan egiten dira, astearteetan izan ezik.



BIZKAIKO ZIN-BIDEA

Bisita gidatu formatuko **ibilbide** honek Bizkaiko Jaunak foruak zin egiteko egindako bidea erakusten digu. Iraila.





EGITARAU BEREZIAK

MARTXOA | **Emakumearen Nazioarteko Eguna** // Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea

APIRILA | **Aste Santua**

MAIATZA | **Museoen Nazioarteko Eguna**

EKIANA-UZTAILA-ABUZTUA | **Udako jarduerak**

URRIA | **Ondarearen Europako Jardunaldiak**

ABENDUA | **Gabonetako jarduerak**